

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital



KULTUR
IKASTAROAK
2016-2017



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

KULTUR
IKASTAROAK
2016-2017



URRIA-AZAROA-ABENDUA / 2016

- Emakume konpositoreak musikaren historian 5
- Eskultura hiriko espazio publikoan 6
- Historia dibulгатzen ikastea: Gerra Zibila eta Bigarren Mundu Gerra Gasteizen 7
- Mezua eta sinbolismoa Arabako Erdi Aroko artean 8
- Gastehiz: euskararen une etengabeak (euskararen historia soziala Gasteizen) 9
- Hurbil zaitez flamenkora bere historia, forma eta testuinguruaren bitartez 10
- Europako zinematografia nagusien azterketa 11
- Nazioarteko istiluak ulertzea 12

URTARRILA-OTSAILA-MARTXOA / 2017

- Krisantemoaren tronuaren altxorak: Japoniako artea 13
- Gasteiz herrixkatik Smartcity-ra: gure hiriko historia arkeologikoak 14
- Soinuen mundu harrigarria 15
- Harresiak eta babes sistemak: Arabako aztarnategi nagusien garapen historikoa 16
- Astronomiaren hastapenak 17
- Haur literatura. Helduen eskuera utzi! 18
- Ardo dastaketaren oinarriak 19

APIRILA-MAIATZA-EKAINA / 2017

- Landare erabilgarriak eta osasuna 20
 - Ondare geologikoa eta geodibertsitatea Araban 21
 - Pintura abstraktua ezagutu eta gozatzea 22
 - Araba eta Amerika: emigrazioa eta indianoen ondarea 23
-

IZENA EMATEA

ZOZKETA

- **Oinarriak:** testu osoa www.vitoria-gasteiz.org webgunean eta gizarte etxeetan.
- **Zozketan parte hartzeko eskabideak:** 2016ko uztailaren 14tik irailaren 5era, Interneten bidez (www.vitoria-gasteiz.org), 010 telefonoaren bitartez zein edozein gizarte etxe edo kirol instalaziotan.
- **Zozketa:** 2016ko irailaren 6an. Esleitutako tokiak izendunak eta besterenezinak dira.
- **Izen-ematea formalizatzea eta ordaintzea:** 2016ko irailaren 6tik 12ra.

BETE GABE GERATUTAKO TOKIAK

2016ko irailaren 20tik aurrera, eta ikastaro bakoitza hasi bitartean, hutsik geratu diren tokiak modu librean eskatzen dituzten pertsoneri emango zaizkie, eskariak Interneten bidez edo zentroetako edozeinetan zuzenean egin ahala.

Antolatzaileek ikastaroren bat bertan behera uzteko erabakia hartu ahalko dute, nahiko ikasle ez bada.

Izena eman duen pertsonak delako ikastaroan esku hartzerik ez badu, gutxienez hura hasi baino egun bat lehenago jakinarazi beharko du. Hala egiten badu, ordaindutako diruaren %85a itzuliko zaio (kontu korrontean sartuta), eta %15a gordeko da kudeaketaren gastuengatik. Aipatutako epea igarota, matrikularen dirua ez da itzuliko.

Udal instalazioetako bazkideek eta 60 urtetik gorakoek prezio murriztua izango dute. Halaber, lanik gabeko pertsonen %15eko hobaria izango dute. Horretarako, Lanbideren “izena emateko aldiei buruzko txostena” (ordainketa egin aurreko zazpi egunetan egina) aurkeztu beharko dute zentroan matrikula egiten duten unean.

Ikastaro batzuetan saio praktiko osagarriak, bisitak eta txangoak egongo dira. Aukerako jarduerak dira horiek, eta gastua eragiten badute, matrikulaz gain ordainduko dira.



EMAKUME KONPOSITOREAK MUSIKAREN HISTORIAN

Irakaslea: Sofia Martínez (konpositorea)

Musikaren historiak ahaztu egin ditu, eta XX. mendera arte ez da haien lana aintzat hartu. Emakume mistikoak edo poetak, musak, emazteak edo arrebak izateaz gain, musikagileak ere izan ziren. Antzinateko lehen garaietatik gaur egun arte asko izan dira emakume konpositoreak: Safo, Hildegard Von Bingen, Marianne von Martinez, Fanny Mendelson, Clara Schumann, Alma Mahler... Historian bere lekua izan dute, baina hala ere haien aztarnak ezabatuak izan dira sistematikoki. Ikusezinak, berreskura ditzagun haien musika ederra.

Antzinatea eta Kristautasunaren hasiera • Erdi Aroa • Goi Erdi Aroa eta Errenazimentua • Italia. Barrokoa • Herri germaniarrak. Klasizismoa eta Erromantizismoa • Ingalaterra eta Estatu Batuak • Frantzia • XX. mendea eta XXI.aren hasiera. Modernitatea

> **ALDABEKO gizarte etxean**

Asteartean / 19:00-21:00 / urriaren 18tik abenduaren 13ra / 7 saio / gaztelaniaz

• **Matrikula:** Bazkide ez direnentzat: 34,02 €, +60 urte: 24,22 € / Bazkideentzat: 17,07 €, +60 urte: 12,18 €

• **Kodea:** 07008



ESKULTURA HIRIKO ESPAZIO PUBLIKOAN

Irakaslea: Natalia Fernández Gil (Arte Ederretan doktorea)

Hiriko testuinguruan dagoen eskultura baloratu eta ulertzeko ikastaroa. Eskultura publikoa aurkeztu ostean, haren errepresentazio moduak eta denborarekin, espazioarekin zein hiritarrekin sortzen dituen harremanak aztertuko ditugu. Ibilbide kronologiko batek lagunduko digu hiriko espazio publikoan eskulturak sortzen dituen loturak ikuspegi orokor batetik osatzen. Azkenik, euskal hiriburuetakoko gune jakin batzuetan jarriko dugu arreta berezia.

Eskultura moduak • Modernitatea, abangoardia eta konstruktibismoa • Tradizio modernoa eta bigarren abangoardiak • Postmodernitatearen testuingurua • Bilbo, Donostia eta Gasteizko kasuak • Gune espezifikoak hiru hirietan

> **ARIZNABARREKO gizarte etxean**

Ostegunetan / 19:30-21:00 / urriaren 13tik abenduaren 22ra / 10 saio / gaztelaniaz

• **Matrikula:** Bazkide ez direnentzat: 36,45 €, +60 urte: 25,95 € / Bazkideentzat: 18,30 €, +60 urte: 13,05 €

• **Kodea:** 07021



HISTORIA DIBULGATZEN IKASTEA: GERRA ZIBILA ETA BIGARREN MUNDU GERRA GASTEIZEN

Irakasleak: Virginia López de Maturana eta Guillermo Marín (Historian doktoreak) eta Xabier Sagasta (arkitektoa eta ilustratzailea)

1936 eta 1945 bitarteko gure hiriko historia oinarri hartuta, kontraera historikoa eraikitzeko erabiltzen diren iturriak aztertuko ditugu: prentsa, agiritegietako dokumentuak, argazkiak, ahozko historia. Iturri horiek interpretatu behar dira, eta adituen esparru akademikotik kanpo ere badira bestelako dibulgazio-moduak ere: irudia, besteak beste.

Historia ezagutzeko erabil daitezkeen iturriak • Iturrien interpretazioa • Gerra Zibila Gasteizen • Bigarren Mundu Gerra Gasteizen • Kontraera historikoa eraikitzea • Historia dibulgatzea: kontraera grafikoa

> IBAIONDOKO gizarte etxean

Ostegunetan / 19:00-20:30 / urriaren 20tik abenduaren 15ra / 8 saio / gaztelaniaz

• **Matrikula:** Bazkide ez direnentzat: 29,16 €, +60 urte: 20,76 € / Bazkideentzat: 14,64 €, +60 urte: 10,44 €

• **Kodea:** 07016



MEZUA ETA SINBOLISMOA ARABAKO ERDI AROKO ARTEAN

Irakaslea: Gorka López de Munain Iturrospe (Artearen Historian eta Antropologia Zientzietan doktoregaia)

Erdi Aroko arteak adibide bikainak ditu Araban, non ikonografiak berebiziko garrantzia duen egileek igorri nahi izan zuten mezuak ulertzeko. Arkitekturaren, eskulturaren nahiz pinturaren garaiko pentsamenduarekin eta sinesmenekin bat datorren sinbolismoa agertzen da.

Nazioarteko programa handiak aurre-erromaniko, erromaniko eta gotikoan • Arte aurre-erromanikoa Araban • Erromanikoa: lehenengo programak, goieneko maila, Armentia eta Estibaliz • Erromaniko eta Gotikoaren artean: Tuesta • Gotikoa herrietan eta hirian • Gasteizko katedrala • Gotikoaren amaiera eta Errenazimentuaren hasiera

> IPARRALDE gizarte etxean

Astelehen-asteazkenetan / 19:30-21:00 / urriaren 3tik azaroaren 28ra / 15 saio / gaztelaniaz

• **Matrikula:** Bazkide ez direnentzat: 54,67 €, +60 urte: 38,92 € / Bazkideentzat: 27,45 €, +60 urte: 19,57 €

• **Kodea:** 07010



GASTEHIZ: EUSKARAREN UNE ETENGABEAK (EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA GASTEIZEN)

Irakaslea: Iñaki Lazkano (GEU eta Lazarraga kultur elkar-teetako kidea)

Euskarak Gasteizen izan duen presentzia eta garapena azaltzea izango da ikastaroaren xedea. Horretarako, lekukotzak aztertuko ditugu, toponimian, lexikoan edota literaturan. Mugimendu euskaltzaleen berri ere emango dugu, gure hirian euskararen alde lehen eta orain lan egi(te)n duten pertsonak eta ekimenak ekarriko ditugu gogora eta, azken finean, ibilbide kronologikoa eta gaikakoa azalduko dugu.

Euskararen arrastoen bila Gasteizen • Zailtasunak, debekuak, lekukotzak • Euskara irakaskuntzan • Herri mugimenduak eta euskararen aldeko ekimenak • Helduen euskalduntze eta alfabetatzea • Kultur adierazpideak (bertsolaritza, literatura, musika, antzerkia...) • Erakunde publikoak eta proiektu partekatuak: Oihaneder Euskararen Etxea

> JUDIMENDIKO gizarte etxean

Asteazkenetan / 19:00-20:30 / urriaren 19tik azaroaren 30era / 7 saio / **euskaraz**

• **Matrikula:** Bazkide ez direnentzat: 25,51 €, +60 urte: 18,16 € / Bazkideentzat: 12,81 €, +60 urte: 9,13 €

• **Kodea:** 07018



HURBIL ZAITEZ FLAMENKORA BERE HISTORIA, FORMA ETA TESTUINGURUAREN BITARTEZ

Irakaslea: Curro Velázquez-Gaztelu (Flamenkoan aditua)

Gizateriaren Ondare Inmateriala izendatua, flamenkoa arte eklektikoa da, etengabe eraldatzen dena. Mugak gainditu ditu, eta kantua, gitarra, dantza eta perkusioa ditu baliabide estilistiko nabarmenenak. Beste diziplina batzuetara salto egin eta beste musika eta arte adierazpideetara hedatzean aberatsago bihurtzen da. Flamenkoaren historia eta formak aztertuko ditugu, eta bere estiloetako konpasak ikasiko ditugu.

Flamenkoaren historia • Oinarrizko kontzeptuak • Konpasa • Lehenengo grabazioak • Flamenkoaren jatorrizko iturriak • Eskolak, lehiaketak eta jaialdiak • Urrezko garaiak • Emakumeak eta flamenkoa • Dantza • Gitarra • Hitzak • Garai iluna, Trantsizioa, flamenko berria, abangoardiak • Rocka, jazz, arte eszenikoak...

> LAKUAKO gizarte etxean

Astelehen-asteazkenetan / 19:30-21:00 / urriaren 5etik azaroaren 30era / 15 saio / gaztelaniaz

• **Matrikula:** Bazkide ez direnentzat: 54,67 €, +60 urte: 38,92 € / Bazkideentzat: 27,45 €, +60 urte: 19,57 €

• **Kodea:** 07015



EUROPAKO ZINEMATOGRAFIA NAGUSIEN AZTERKETA

Irakaslea: Jorge Barrio Uribarri (zinema-zuzendaritzan irakaslea, film laburren ekoizlea eta zuzendaria)

Europako filmografia nagusiei buruz jardungo dugu ikastaroan, herrialdez herrialde, eragin handia izan dutelako zinemaren historian. Zuzendaririk garrantzitsuenak, generorik ohikoenak eta gehien erabili diren ekoizpen motak aztertuko ditugu, kasuan kasuko herrialdearen historia eta elkarren arteko harremanak gogoan hartuta.

Frantzia • Ingalaterra • Italia • Alemania • Errusia • Polonia • Suedia • Espainia

> PILARREKO gizarte etxean

Astelehen-asteazkenetan / 19:00-20:30 / urriaren 3tik azaroaren 28ra / 15 saio / gaztelaniaz

• **Matrikula:** Bazkide ez direnentzat: 54,67 €, +60 urte: 38,92 € / Bazkideentzat: 27,45 €, +60 urte: 19,57 €

• **Kodea:** 07004



NAZIOARTEKO ISTILUAK ULERTZEA

Irakaslea: Juan Ibarrodo Portilla (kazetaria eta idazlea)

Istilu batzuen testuinguru historikoari buruz jardungo dugu, eta ikuspegi geostrategikoa ere aztertuko dugu, munduko potentzien interesak eta haien eragina eskala txikiko istiluetan ikusarazteko. Herri horietako kultura eta bizimoduetara hurbilduko gara, eta istilu horiek gertutik bizi diren pertsonen ekarpenak ere izango ditugu.

Ekialde Ertaineko liztor-habia • Errefuxiatuen krisia eta ondorioak EBn • Gerra ahaztuak, komunikabideetan ia agertzen ez direnak • Ekogerrak: ingurumen faktoreak nazioarteko istiluetan

> **SALBURUKO gizarte etxean**

Astearte-ostegunetan / 19:00-20:30 / urriaren 18tik
abenduarren 15era / 15 saio / gaztelaniaz

• **Matrikula:** Bazkide ez direnentzat: 54,67 €, +60 urte:
38,92 € / Bazkideentzat: 27,45 €, +60 urte: 19,57 €

• **Kodea:** 07001



KRISANTEMOAREN TRONUAREN ALTXORRAK: JAPONIAKO ARTEA

Irakasleak: Ricardo Garay, Leire Berroeta eta Gonzalo Martínez de Antoñana (arte historiagileak)

Japonia da, seguru asko, Mendebaleko biztanleak gehien txunditu dituen herrialdea, Europako kulturekiko oso bestelakoak diren gizartea eta arte adierazpideak osatu dituelako historian zehar. Ikastaroan, Japoniako artea izango dugu aztergai, milurteko historia duen artea, hain zuzen, lehen bezala orain ere liluratzen gaituena.

Japoniako historia eta artearen ingurukoak • Arkitektura erlijiosoak • Arkitektura zibila • Eskultura japoniarra • Marraztutako mundu batera goaz: pintura • Japonismoa

> **ALDABEKO gizarte etxean**

Astelehen-asteazkenetan / 19:30-21:00 / urtarrilaren 16tik martxoaren 6ra / 15 saio / gaztelaniaz

• **Matrikula:** Bazkide ez direnentzat: 54,67 €, +60 urte: 38,92 € / Bazkideentzat: 27,45 €, +60 urte: 19,57 €

• **Kodea:** 07009



GASTEIZ HERRIXKATIK SMARTCITY-RA: GURE HIRIKO HISTORIA ARKEOLOGIKOAK

Irakasleak: Sonia García Rodríguez eta Xurxo M. Ayán Vila (EHUko Ondare Eraikia Ikertzeko Taldea)

Gure hiriko historia beste modu batez aztertuko dugu, azken urteetako indusketa arkeologikoez eta ikerketa historikoez ezagutzera eman duten informazioaren bitartez. Iraganari buruzko kontaera iradokitzaileak osatuko ditugu horrela eta, besteak beste, Gasteizko historian botereak izan duen jokabidea agerian utziko dugu.

Armentiako arkeologia garaikidea • Arabako Ipar Frontearen arkeologia • Juduen arkeologia • Gasteizko gudua eta errealitatea • Karlismoaren arkeologia • Eliteak eta hiri garapena XIX. mendeko 2. erdialdean • Airetik arkeologia: Lakuatik Forondara Salburutik igarota • Gerra Zibilaren arkeologia • Koroatze auzoaren premiazko gida arkeologikoa • XIX. mendeko eta XX. mende hasierako hiriak • Istiluaren arkeologia Santa Isabeleko hilerrian • XXI. mendeko hiri arkeologia

> IBAIONDOKO gizarte etxean

Astearte-ostegunetan / 19:00-20:30 / urtarrilaren 17tik otsailaren 23ra / 12 saio / gaztelaniaz

• **Matrikula:** Bazkide ez direnentzat: 43,74 €, +60 urte: 31,14 € / Bazkideentzat: 21,96 €, +60 urte: 15,66 €

• **Kodea:** 07017



SOINUEN MUNDU HARRIGARRIA

Irakaslea: Sabin Salaberri (konpositorea)

Soinua uhinen bidezko mugimendua da, ingurune elastiko batean (airean, orokorki) zabaltzen den eta frekuentzia, iraupena, intentsitatea eta tinbrea bezalako ezau-garri aldakorrak dituen fenomeno fisiko hutsa. Hala ere, soinu hori musika bihur daiteke, eta halakoetan egiazko emozioak sortzen dituen lengoiaia ere bada.

*Soinua eta musika • Melodia, harmonia eta erritmoa •
Musika konposatzeko moduak historian zehar • Ahotsa
eta musika tresnak*

> IPARRALDE gizarte etxean

Astelehen-asteazkenetan / 19:30-21:00 / urtarrilaren
16tik martxoaren 6ra / 15 saio / gaztelaniaz

• **Matrikula:** Bazkide ez direnentzat: 54,67 €, +60 urte:
38,92 € / Bazkideentzat: 27,45 €, +60 urte: 19,57 €

• **Kodea:** 07011



HARRESIAK ETA BABES SISTEMAK: ARABAKO AZTARNATEGI NAGU- SIEN GARAPEN HISTORIKOA

Irakasleak: Idoia C. Domínguez Beltrán de Heredia, Leandro Sánchez Zufiaurre eta José Manuel Martínez Torrecilla (Qark Arqueología)

Harresiak eta babes sistemak eraikitzeko moduak aztertuko ditugu, Araban zehar egingo dugun ibilera kronologiko batean, protohistorian hasi eta Aro Modernora bitartean, Erromako garaietatik, Antzinaro Berantiarretik eta Erdi Arotik igarota.

Lehenengo babes sistemak: protohistoria (Castros de Lastra, Alto de Castejón, La Hoya) • Erromatar Inperioko hiri gotortuak (Iruña-Veleia) • Inperioaren bukaera: eraso eta defentsarako sistema berriak (Aldaieta) • Dorreak, elizak eta gazteluak Erdi Aroko mugetan eta bideetan • Lehenengo hiri harresituak: Gasteiz • Harresigintza Aro Modernoan: Iruña, adibide gisa • Harresietatik harago: babes funtzioa galtzen denean

> JUDIMENDIKO gizarte etxean

Asteazkenetan / 19:00-20:30 / urtarrilaren 18tik
martxoaren 8ra / 8 saio / gaztelaniaz

• **Matrikula:** Bazkide ez direnentzat: 29,16 €, +60 urte: 20,76 € / Bazkideentzat: 14,64 €, +60 urte: 10,44 €

• **Kodea:** 07019



ASTRONOMIAREN HASTAPENAK

Irakasleak: Julio Corredera, Etor Fernández, Jaime Fernández, Jesús García, Mikel Martínez eta David Sedano (astronomian adituak)

Gizakiok antzina-antzinatik egon gara zerura begira, eta zenbait gertaera aldi behin errepikatzen direla ohartu gara. Horri esker, egutegiak zehaztu ahal izan genituen, eta hartara, gure espeziearen haurtzarotik bertatik gizarte eta kultura sustatu eta antolatu. Gaur egun, ordenagailuen eta Interneten erabilera zabaldu denetik, astronomia amateurra harrigarriro garatu da.

Fauna kosmikoa • Kokapen astronomia: koordenatuak, itxurazko mugimenduak, ekliptika • Astronomiarako informatika programak • Eguzkia, Lurra, Ilargia: deskripzioa, faseak, eklipseak • Zerua, urtaroen arabera • Astronomia eta Internet • Astronomia ikerkuntzaren historia • Teleskopioak • Astroen argazkigintzaren hastapenak • Izarrak eta galaxiak • Drakeren ekuazioa

+ 3 saio teoriko-praktiko: eguzkiaren / ilargiaren eta planeten / zeru sakonaren behaketak

> LAKUAKO gizarte etxean

Astelehen-asteazkenetan / 19:30-21:00 / urtarrilaren 16tik martxoaren 6ra / 15 saio / gaztelaniaz

• **Matrikula:** Bazkide ez direnentzat: 54,67 €, +60 urte: 38,92 € / Bazkideentzat: 27,45 €, +60 urte: 19,57 €

• **Kodea:** 07014



HAUR LITERATURA. HELDUEN ESKUERAN UTZI!

Irakaslea: Txabi Arnal Gil (idazlea eta EHUko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko irakaslea)

Ez gatoz bat haur literatura ganorazko heldu literatura-rantzako aurre pauso bat dela uste dutenekin. Ez gaude ados umea formatzen ari den izakia baino ez dela esaten dutenekin. Haur literaturak berezko nortasuna dauka, umeak nortasun propioa daukan bezala. Umea da eta haur literatura ere bada. Aurki dezagun aurreiritziek eta gehiegizko katalogazioek ukatzen diguten mundu zoragarri hau.

Haur literatura • Kontzeptua • Haur literatura klasikoa eta gaur egungoa • Irudia eta narrazioa • Albuma • Haur literatura eta gai deserosoak • Haur literatura eta rolak • Haur literatura eta didaktismoa • Haur poesia • Haur literatura berritzailea

> PILARREKO gizarte etxean

Asteazkenetan / 19:00-20:30 / urtarrilaren 18tik martxoaren 22ra / 10 saio / **euskaraz**

• **Matrikula:** Bazkide ez direnentzat: 36,45 €, +60 urte: 25,95 € / Bazkideentzat: 18,30 €, +60 urte: 13,05 €

• **Kodea:** 07005



ARDO DASTAKETAREN OINARRIAK

Irakasleak: Jorge Martínez Fernández eta Imanol Sarasola Ormazabal (enologoak)

Dastatzerako oinarrizko printzipioak erakutsiko dira ikastaroan eta horiek ardoaren munduaren atzean dagoen erreferente kultural oparora hurbiltzeko baliatuko dira. Teoria eta praktika uztartuz, usainak buruz ikasi eta hainbat ardo mota dastatu egingo dira.

Ardogintzaren historia laburra eta dastazerako prozedura

• Mahatsaren eta ardoaren osagai nagusiak • Usaimena eta kolorea, usainen sailkapena • Ardo zuri, beltz eta gorrien elaborazioa; ardo onduak eta ontze prozesua • Arabako Errioxako ardo eta upategiak (gazt.) eta txakolina (eusk.)

> SALBURUKO gizarte etxean

19:00-21:00 / 7 saio

> Astelehenetan / urt. 16tik ots. 27ra / gaztelaniaz

> Astearteetan / ots. 7tik mar. 21era / **euskaraz**

• **Matrikula:** Bazkide ez direnentzat: 34,02 €, +60 urte: 24,22 € / Bazkideentzat: 17,08 €, +60 urte: 12,18 €.

*Matrikulan ordaintzen denaz aparte, lehenengo klase egunean 20 € ordaindu beharko dira ikastaroan dastatuko diren ardoak erosteko.

• **Kodeak:** 07002 (gaztelaniaz) - 07003 (euskaraz)



LANDARE ERABILGARRIAK ETA OSASUNA

Irakaslea: Ángela Castro Vega (Zientzia Biologikoetan lizentziaduna)

Mundu begetalaren gaineko ezaguera hiritarregana hurbildu nahi dugu, gure eguneroko bizitzan landareek duten garrantzia azpimarratuz. Sendabelarrei eta gure osasunerako dituzten aplikazioei buruz jardungo dugu, baita landare jangarriei eta usaintsuei buruz.

Oinarrizko botanika • Baso motak Gasteizko udalerrian • Sendabelarrak • Fitoterapia • Produktuak nola egin: infusioak, uretan egosiak, beratzeak • Basalandareak sukaldaritzan

> **ARIZNABARREKO gizarte etxean**

Astearte-ostegunetan / 11:00-12:30 / apirilaren 4tik ekainaren 1era / 15 saio / gaztelaniaz

• **Matrikula:** Bazkide ez direnentzat: 54,67 €, +60 urte: 38,92 € / Bazkideentzat: 27,45 €, +60 urte: 19,57 €

• **Kodea:** 07022



ONDARE GEOLOGIKOA ETA GEODIBERTSITATEA ARABAN

Irakasleak: Ángel Martínez Montecelo (geografoa) eta Cintia Zurita Calvo (geologoa)

Arabako lurraldeak oparoak dira interes geologikoa duten elementu eta guneetan, eta ikastaroak haien ezaugarriak ezagutarazi nahi ditu, modu egokian balora eta goza ditzagun.

Ikerketa geologikoa Araban • Oinarriak eta kontzeptu nagusiak • Arabako historia geologikoa • Egitura geologikoak eta erliebea • Estratigrafia • Paleontologia eta erregistro fosila • Kuaternarioa Araban • Ondarea eta interes geologikoa duten guneak Arabako eskualdeetan

> JUDIMENDIKO gizarte etxean

Astelehen-asteazkenetan / 19:00-20:30 / apirilaren 3tik maiatzaren 31ra / 15 saio / gaztelaniaz

• **Matrikula:** Bazkide ez direnentzat: 54,67 €, +60 urte: 38,92 € / Bazkideentzat: 27,45 €, +60 urte: 19,57 €

• **Kodea:** 07020



PINTURA ABSTRAKTUA EZAGUTU ETA GOZATZEA

Irakaslea: Rubén Díaz de Corcuera (Arte Ederretan doktorea)

Abstrakzioa XX. mendeko pinturaren joera garrantzitsuenetakoa da, eta ikastaroaren xedea pintura abstraktuarekiko publikoaren gaitasuna hobetzea da.

Pintura abstraktuaren aurrekariak • Pintura abstraktuaren asmakizunari buruzko mitoak • XX. eta XXI. mendeetako pintura abstraktuaren joerak • Euskal eskola abstraktua • Pintura abstraktua interpretatzeko joerak • Artearen semiotikaren hastapenak (pintura abstraktuaren semiotika) • Pintura abstraktuz gozatzeko kultura eta sentsibiltatea

> LANDATXOKO gizarte etxean

Astearteetan / 19:30-21:00 / apirilaren 25etik ekainaren 6ra / 7 saio / gaztelaniaz

• **Matrikula:** Bazkide ez direnentzat: 25,51 €, +60 urte: 18,16 € / Bazkideentzat: 12,81 €, +60 urte: 9,13 €

• **Kodea:** 07007



ARABA ETA AMERIKA: EMIGRAZIOA ETA INDIANOEN ONDAREA

Irakaslea: José Rodríguez Fernández (Historian doktorea eta EHUKo Letren Fakultateko irakaslea)

Arabatik Ameriketara joandako emigratzaileen historia aztertu ondoren, indiano haiek utzitako ondareaz jardungo dugu. Emigrazio horren ondorioz aberastu zirenek balio handiko ondare-ondasunak utzi zituzten Araban XVI. eta XX. mendeen artean, eta horien bila abiatuko gara: objektu artistiko higigarriak, egiturak, zerbitzu publikoak edo eraikinak, besteak beste.

Euskal emigrazioa Mundu Berriko kolonietara • Arabarrak Ameriketara • Bidaia, antolaketa, sare sozialak, istorioak • Amerikako historian nabarmendu diren arabarrak • Amerikako “aztarnak” Araban • Eraikin erlijioso handiak • Arte erlijioso higigarria • Bizitegi-eraikinak • Sorospen erakundeak eta ondare publikoak • Inbertsioak ekonomian eta industrian • Gaurko egoera eta erronkak etorkizunerako

> **PILARREKO gizarte etxean**

Astelehen-asteazkenetan / 19:00-20:30 / apirilaren 3tik maiatzaren 31ra / 15 saio / gaztelaniaz

• **Matrikula:** Bazkide ez direnentzat: 54,67 €, +60 urte: 38,92 € / Bazkideentzat: 27,45 €, +60 urte: 19,57 €

• **Kodea:** 07006